

2021eko irailaren 17a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LEHENDAKARITZA

4781

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 3koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluan eta Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2021eko uztailaren 1eko Ebazpenaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (2021eko uztailaren 8ko EHAA, 134. zk.), Lehendakaritzan lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen zuena, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea «telefonista» lanpostu hau: Zerbitzu Zuzendaritzan, 520203 kodea, 4 dotazioa.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organo berari hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari bi hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 3a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.